



Arartekoaren 2018S-1384-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio herritar bati gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko arrazoiak berrazter ditzala.

Aurrekariak

Herritar batek kexa bat aurkeztu du eta, horren bidez, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du gizarte-larrialdietarako laguntzak ukatu dizkiotelako.

Dioenez, 2017ko martxoaren 14an, alokairua, energiaren eta uraren fakturak eta oinarritzko beste premia batzuk ordaintzeko laguntza eskatu zion Gasteizko Udalari, eta beharrezkoa zen dokumentazioa aurkeztu zuen horrekin batera.

Ondoren, apirilaren 10ean, jakinarazi zioten ez zuela laguntza horiek jasotzeko eskubiderik. Elkarrizketan azaldu zioten haxe zela eskubide hori ez izateko arrazoiak: etxebizitzaz aldatu izana. Kexagileak egoera horren berri eman omen zion udalari, eta jakinarazi zion ahizparekin bizitzeak zailtasunak ekartzen zizkiolako eta buruko osasunari lotutako arazoak eragiten ari zitzaizkiolako aldatu zela etxez (depresioa diagnostikatu ziotela jasotzen zuen mediku txostena erantsi zuen).

Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen eta, ondoren, gertaera horien inguruko informazioa eskatu zion Gasteizko Udalari; zehazki, laguntzak ukatzeko ebazpena noiz emango zuen eta idatziz noiz jakinaraziko zuen galdetu genion.

Gasteizko Udalak txosten bat bidali dio erakunde honi eta adierazi dio (...) diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun zela -ahizpa da prestazioaren titularra (...) harik eta egun batean, aurretik ohartarazi gabe, emantzipatzea erabaki zuen arte, justifikatutako arrazoirik eman gabe eta horretarako bitartekorik ez zuela, eta, beraz, logela bat alokatu zuela eta han erroldatu zela. Hori guztia dela eta bere egoera sozio-ekonomikoa larriagotu duela jo dela gaineratu du. Hartutako erabakia dela tarteko, orain ez du behar adina baliabide.

Arrazoi hau dela-eta ukatu dizkiote gizarte larrialdietarako laguntzak: *“por agravar su situación de exclusión social”*.

Horren ondoren, kexagileak etxebizitzaren alokairua, energiaren gastuak eta beste mantentze gastu batzuk ordaintzeko gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko ebazpenaren kopia helarazi zion erakunde honi.

Laguntza horiek ukatzeko arrazoiak haxe zen: erakunde horrek ez zuela interesdunaren beharrezko egoera baloratu, gizarte bazterketako egoera larriagotu zuela uste zuelako. Horrekin batera, errekurtsio idatzi bat aurkeztu zuen.

Erakunde honek aipatutako errekurtsioaren ebazpenagatik galdetu du, eta egiaztatu dugu interesduna okertu egin zela eta idatzi hori Gasteizko Udalaren erregistroan aurkeztu beharrean, Arartekoaren erregistroan aurkeztu zuela.





Gogoetak

1. Honako hauek arautzen dituzte gizarte larrialdietarako laguntzak: Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, eta urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak aldatutako urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak, laguntza horien inguruko lege xedapenak garatzen dituenak. Araudi hori Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2017ko martxoaren 8ko aginduak osatzen du. Horren bidez, 2017an gizarte larrialdietarako laguntzetan barne hartutako gastu jakin bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatu ziren, eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzarentzat 2017. urterako aurrekontu-mugak finkatu ziren.

Hona hemen laguntza horien definizioa: *“diru-laguntzak dira, aldian-aldian emango ez direnak, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifiko, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak”* (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua).

Horrenbestez, egoera ekonomikoa, behar adina baliabide ez izatea, alegia, adierazle garrantzitsua da udaleko gizarte zerbitzuek laguntzak emateko baldintzak betetzen dituztela baloratzerakoan.

Aipatutako araudiaren 5.1. artikuluan laguntza horien onuradun izateko betekizunak daude jasota. Urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan 2. atalari emandako idazketa berrian, hauxe ezartzen da: *“Ezin izango dituzte baliatu alokairu-gastuak edo ohiko etxebizitza edo bizilekua erosteko hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik eratorritako gastuak ordaintzera bideratutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, eskatzaileak edo haien bizikidetzaren unitateko beste edozein kide honako egoera hauetakoren batean baldin badago:*

a) Etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan du, eta, eskabidea egitean indarrean dagoen legediaren arabera, etxebizitza hori babes publikoko etxebizitza-motaren batekoa da, Eusko Jaurlaritzak, beste administrazio publiko batzuek edo administrazioaren mendeko entitateek sustatua. Egon daiteke salbuespenik, baina dena delako udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuek esan beharko dute salbuespena dela, eta, egiaztatzeko, eskabide-espeditentari txosten soziala erantsi beharko zaio.

b) Etxebizitza bat jabetzan edo usufruktuan du eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu ditu beste etxebizitza baten alokairu-gastuei aurre egiteko, azken hori haren ohiko bizitokia izanda ere, salbu eta banantzeagatik edo dibortzioagatik eta beste arrazoi batzuegatik, hala nola utzarazpena, beren ohiko bizilekua utzi behar izan duten edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonak badira, besteak beste”.



Atal horrek ez du ezartzen pertsonak etxebizitzaz aldatzea erabakitzea alokairu gastuak ordaintzeko gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko arrazoia denik. Kontrara, aintzat hartzen da balitekeela interesdunek beren ohiko bizilekua utzi behar izatea.

Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren udal-prestazio ekonomikoen programa arautzen duen ordenantza berriaren (2017ko uztailan onartu zen) 6.2. artikulua hau ezartzen du: *“Bizikidetzaren unitateko kideak ezingo dira bertatik bereizi prestazio-programa honen laguntzarekin, ez bada, beren egoera psikosoziosanitarioa dela eta, erreferentziazko profesionalen diagnostikoan eta esku-hartzeko planean horren premia aitortzen delako, egoera azaltzen duen txostena dela medio”.*

Bi ahizpek bizikidetzaren arazo handiak zituztelako erabaki zuen interesdunak etxez aldatzea. Gizarte larrialdietarako laguntzen eskaerarekin batera mediku txosten bat igorri zuen interesdunak, eta han adierazten zen kexagileari tratamendua eman ziotela depresio koadroa diagnostikatu ziotelako. Arartekoaren iritziz, kexagileak plazaratutako arazoak duen oinarria aintzat hartuta, badirudi nolabaiteko esku-hartze soziala burutu beharko zatekeela zailtasun horien edo gatazka larriaren norainokoa ezagutzeko. Familiarteko indarkeria egoerak (edo egoera psikosanitarioa, geroago ordenantza arautzailean jaso denez) arriskutsuak izan daitezke pertsonen osasun eta osotasunerako, eta etxe berean elkarrekin bizitzeari uztea erabakitzea justifika dezakete.

2. Gizarte zerbitzuen balorazioak baldintzatzen du laguntza horiek onartu edo ukatzea: 2.3. artikulua (16/2017 Dekretuak emandako idazketan) honako hau ezartzen du: *“Era berean, gizarte-zerbitzuen balorazioaren arabera erabakiko da ematea edo ez, dekretu honetako 10. artikuluko 1.c paragrafoan eta 21. artikuluko 1. paragrafoan zehazten den bezala”.*

Aipatzen dituen artikuluek hauxe diote:

10. artikulua.- Eskaera bakoitzeko gehieneko zenbatekoa. 1.-c) *“Gizarte-zerbitzuek ondorengoak egiaztatzeke egiten duten balorazioa: gastua benetan beharrezkoa den, laguntza-premia duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko garrantzitsua den edo lehentasunezkoa den”.*

21.1. artikulua, 16/2017 Dekretuan emandako idazketan: *“Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman aurretik, erreferentziazko oinarrizko gizarte-zerbitzuak kasu guztietan egiaztatu beharko du benetako premia-egoera dagoela eta laguntza horiek egokiak direla egoera horri aurre egiteko; era berean, helburu horretarako kreditua ezarrita dagoela ere egiaztatu beharko da. Laguntzak ematea premia-egoerari aurre egiteko desegokia dela baloratzeko, kontuan hartuko da, bereziki, inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzan erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko”.*



Hori dela eta, udaleko gizarte-zerbitzuek baloratu behar dute gastua benetan beharrezkoa den, benetako premia larriko egoera den, laguntza-premia duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko egokia, garrantzitsua eta lehentasunezkoa den, horretarako kreditua esleituta dagoen eta ez ote dagoen zantzurik laguntza behar ez bezala edo xedearekin bateragarria ez den moduan erabiliko dela pentsarazten duenik.

Gasteizko Udalak emandako laguntzak ukatzeko ebazpenak biltzen duen azalpenean ez da jasotzen erreferentziazko oinarrizko gizarte zerbitzuak adierazitako kontuak egiaztatu dituen. Horrez gain, ez da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan ezarritakoari jarraituz, arrazoitzeko txostenik erantsi.

Udalak ondorioztatu du etxez aldatzeko erabakia, ikuspegi ekonomikotik, kaltegarria dela pertsona horrentzat, eta ez ditu beste alderdi batzuk aintzat hartu, laguntzak ukatzeko ebazpenean adierazitakoaren arabera. Horiek horrela, Arartekoak azpimarratu behar du esku-hartze sozialak gizarte bazterketaren kausa anitzei erantzuna eman behar diela, zerbitzuak pertsonalizatuz eta erabiltzaileen autodeterminazioa kontuan hartuta. Zerbitzuak eta prestazioak erabiltzaileen premietara egokitzeak gizarte laguntzan konfiantzazko harremanak sortzeko aukera ematen du. Horrela, pertsona bakoitzaren premia eta itxaropen partikularretara egokitzen laguntzen du, gizarte bazterketa baldintzatzen duten askotariko faktoreei aurre egite aldera. Horri dagokionez, hauxe dio ordenantza arautzaile berriaren zioen azalpenak: *“Pertsonarengan zentratutako esku-hartzeko eredu zientifiko-teknikoan oinarrituta dago bere lan-metodologia: entzute aktiboan oinarritutako laguntza-harreman bat ezartzen delarik lehenik, orientabidea, laguntza eta aholkuak ematen dira ondoren, adostasuna bilatzen, eta pertsona eta taldeek beren autonomia eta kontrola areagotzeko laguntza egokiak eskaintzen”*.

Esku-hartze sozialaren ikusmolde aurreratuenak **pertsonen autodeterminazio gaitasuna errespetatzen du**. Arartekoaren ustez, norberak etxez aldatzea erabakitzeko berezko ahalmena du (Espainiako Konstituzioaren 19.1. artikuluan, bizilekua askatasunez aukeratzeko eskubideari buruzkoan, dago jasota horren adierazpen juridikoa). Kexagileak, bere autodeterminazioa erabiliz, azaldu du etxez aldatu behar izan zuela **bizikidetzaren arazoak eta buruko osasunari lotutako arazoak zirela medio**. Gizarte larrialdietarako laguntzen eskatzaileak azaldutako zailtasun handiak ikusita, esku-hartze soziala egin beharko zatekeen (pertsona hori hartu, bere premiak eta gaitasunak ebaluatu, esku hartzeko plana elkarrekin prestatu eta diseinatu, plan hori ezarri, eta haren jarraipena eta balorazioa egin), pertsona horrek bere autonomia mailan aurrerapausoak egin zitzan, edo, bestela, -dagokion gizarte txostenaren bidez-bizikidetzak arriskurik ez zekarrela ondorioztatu zedin. Erakunde honek egindako informazio eskaerari lotuta jasotako erantzunean nahiz laguntzak ukatzeko ebazpenean adierazitakoari erreparatuta, ezin da ondorioztatu azaldutakoa bezalako esku-hartze soziala burutu denik.





3. Gizarte larrialdietarako laguntzen eskaera ukatzeko ebazpenean jasotako arrazoiak zalantzan jartzen ditu analisi honek. Aldez aurretik argitu beharra dago zio horiek ez dutela oinarri urtarilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla zalantzan jartzen duen lege xedapenik. Hori dela eta, erakunde honek ez du bere iritzia emango baldintzak bete izanaren inguruan.

Ebazpen honen xedea hau da: gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzean, erabaki hori behar bezala arrazoitzea zein garrantzitsua den hausnarraraztea. Gasteizko gizarte zerbitzuak erreferente dira hizpide dugun gaiari dagokionean, eta ikuspegi aurreratuak erabili dituzte esku-hartze sozialean. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ere aurrerapauso horien berri ematen du (7.-11. artikulua). Horiek oinarri hartuta, pertsonak emantzipa daitezten da esku-hartzen sozialaren helburuetako bat. Gainera, laguntzak izapidetzeko eta onartzeko beharrezkoa den ikuspegi juridikotik, administrazio prozeduraren bermeak aplikatu behar dira. Gauzak horrela, laguntzen eskaerak ebazteko administrazio prozedura arautzen duten legeak aplikatu behar dira, besteak beste urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulua: *“Arrazoitu egin behar dira, egitatean eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra ere eginez, hauek: a) Eskubide subjektiboak edo bidezko interesak mugatzen dituzten egintzak (...).* Horrez gain, laguntza horiek erregulatzen dituen araudia ere aplikatu behar da. Esku-hartze sozialaren zati batek, hala nola prestazio ekonomikoak emateak, zuzenbidea barne hartzeak juridikoki zehatzak diren administrazio ebazpenak ematera behartzen du.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten diogu Gasteizko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Arartekoak iradokitzen du interesdunari gizarte larrialdietarako laguntzen eskaera ukatu zion ebazpenean aipatutako arrazoiak berrius daitezten, administrazio prozedura arautzen duten legeei jarraituz, bai eta laguntzak erregulatzen dituen araudia bera aplikatuz.

